



Antxiñako fotografixia



Eusko Ikaskuntza Oñatin sortu zanekua

Denporia batzuetan aguro faten dala, gero! Aldizkari honen lehenengotako numero batian, 11.ian hain zuzen be, **Eusko Ikaskuntzaren I. Kongresuaren** barri zabala emun geben. Oñatin 1918ko agorraren 1etik 8ra ospatu zan Batzar famauaren 75. urteurrena zan orduan. Eta horra, badatorkigu 90.a. Eta ezin ba orainguan be aittatu barik itzi gure herrixan XX. gizaldixan euki geben kultura aldetiko gertakaririk inportantiena. Kongresistak 783 izan ziran (120ttik gora oñatiarrak), eta erakunde laguntzailliak 96 (diputaziñuak eta udalak, batez be).

Egun horreittan Oñatiko unibersidade zaharrian alkartu ziran sail desbardiñetako lan-taldiak euren ikastaro nahiz zeregifiñetarako, eta orduan hutsik eguen Garaiñeko pospolo-fabrikan milla jarlektik gorako areto ederra modutu zan hainbat jardunaldi, hitzaldi eta ikuskizunetan jente askok batera parte hartu ahal izan egixen. Hortik aparte, jai eta ekintza ugari antolatu ziran pelotaleku, plaza eta kalietan zihar herriñtaren gozamenerako. Bi erakunde sortu ziran Batzar haretan: **Eusko Ikaskuntza** eta **Euskaltzaindia**, gerora hainbeste garrantzi euki daueiñak Euskal Herriko historixan. Hemezortzi urte beranduago hasi zan gerra zibillak instituziño honein lana eten edo moteldu egin baeben be, ezin da ukatu orduan Oñatin emundako pausuak ondorixo asko eta onak izan zittuanik.

Argazkixan herritarrez inguratuta agiri diranak plazan gora datozen garai haretako agintarixak dittugu klausura-eguneko ekittaldi batian. Honeitxek dira ezkerretik eskumara:

Juan Gordoia Perea, Oñatiko alkatia; **Jose Maria Orbe Gaytan de Ayala**, Valdespinako markesa eta Gipuzkoako diputauburua; **Ramon de la Sota Aburto** Bizkaiko diputauburua; **Lepoldo Eijo Garay** Bitorixako obispua; eta eskumakua, seguru asko, bere izenik lortu eztogun arren, Arabako diputauburua dala uste dogu. Bigarren illaran bakarra ezagutu dogu: **Gregorio Mujika Mujika**, Kogresuko idazkarixa eta antolatzaillak nagusixena.

J. E.

Fotografixia Udaleko Argazki-fondotik eskuratu dogu.